

Herioren hegala

(literatura bonbapean)

Iñigo Aranbarri

Literatura Eskola 2011-2012
www.literaturaeskola.org

2012ko apirila

© Iñigo Aranbarri
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>

HITZAURREA

Isiltasunari ostutako testuak dituzu hauek.

Ez dira nireak egundo izan. Nireak egin egin dira, ezarian, eztan-
den osteko isilunea xaretzen joan denean. Kea desegin eta bizitza izpika
loratu arau hasi zitzaizkidan azaleratzen, Durango eta Gernikako 75.
urteurrenaren kariaz, hitzaldi bat zela medio. Teila hautsiek, makako-
rroek, dei etsituek atera dizkidate isiltasun beldurgarri horretatik. Zen-
bat diren, ez dakit. Hona dakartzadanak aukera murriz baten emaitza
direla, ez dago esan beharrik.

Bonbardaketena, isiltasun handi baten istorioa baita.

Isiltasuna, hori delako, behin eta berriz, nonahi, bizitzak ematen
dion berehalako erantzuna. Eta handia, egunerokotasunak bere hotsak
ekarriagatik isiluneak hor dirauelako, direnak direla arrazoiak.

Sasoi batean, munduko bidegabekeria larrienaren begian geun-
dela sinetsita bizi ginen. Gernikakoa zen, hala esaten genuen, herritarren
kontrako aurreneko aire-erasoa. Arbola santurik gabe, Durango ez ze-
goen urruti, ordea. Ezta Otxandio ere, gerra hasi eta lau egunera. Den-
bora behar izan dugu jakiteko ohore malapartatu hori ez zegokigula gu-
ri, Afrikan egin zela lehenbiziko aldiz esperimientua, Arrifen. Hori bai,
egile beren eskutik. Ezaguna zaigu ondoren zer etorri den. Laster da
mende bete populazio zibilaren kontrako bonbardaketak egiten hasi zi-
rela. Noiz amaituko diren, badakigu.

Bitartean, hala moduzko zerrenda bat osatzea, ez da lantegi zaila.
Beti estutu behar da koska bat, hori bai. Hegazkin mota, lehergaien osa-
keta, pilotuen izen-abizenak kanbiatu... baina logika bera beti. Biktimak
dira itxura batean aldatzen direnak, gero, nola ez dakigula, elkarren antz
itzela hartzen badute ere. Asko dakigu, baina isiltasunak salatu egiten du
gure jakinduria. Bonbardatutako herrien gaintetik atzamarra pasatzea da:
zenbat idazle heldu da guregana hemendik? Zenbat testu handik?

Irabazleek zentsura ezarri zuten Japonian Hiroshima eta Naga-
saki suntsitu eta gero. Debatua zegoen bonba atomikoak utzitakoaz
idaztea. Yoko Ota izan zen estatubatuarren erabakiaren biktimetako
bat. Emakumearen erantzunak durundi egiten du egun ere: “Ezin ahantz
dezaket... argitaratzerik ez badut ere, idatzi beharra dut”.

Idatzi bai, baina nork irakurtzeko? Orain ez dago zentsura ezarri beharrik. Hiroshima ostean egon diren Gernika guztietan, berdin Groznin zein Shinchunen, Kosovon nahiz Basoran, egon da Yoko Ota bana. Ondoriozko galderak gure literatura sistema salatzen du: zergatik ez zaigu helarazi haien lan bakar bat? Edo bestela ikusita: non egon da munduaren berri hainbeste dakien idazleria hango hautsik ez batzeko?

Bai, beharbada daukaguna baino ‘informazio gehiago’ behar dugu izugarrikerion muinaz taxuzko lerro bakar bat zirriborratzeko, baina orduan, obra perfektuaren zain, mututasuna salatari, onartu behar ko genuke Durangoz zein Gernikaz idatzi duten Vallejo, Éluard, Unzueta guztiek hobe zuketela berba euren eskuez ito.

Eta ondorioak beldurra ematen du: ez diogu literaturari arriskuaren zakarrik ere opa?

Hitzik eza bera ez da zikinagoa?

OGI ZERUTIK ETORRIA

(Libia, 1911)

Gauak beste ditu egun seinalatuak Historiak.

Hegazkinetik bonbaz egindako erasoak 1911ko azaroaren lehenbizikoan du txakur-belarria, Giulio Gavotti tenienteak ordura arte inoiz ikusi gabekoa egin zuenean: lau granada bota zituen Ain Zara-ko posizioen gainera, Tripolitik ez urrun, hegoaldera. Turkiarren kontrako gerran zebilen Italia, eta txorien ezin antzekoagoak ziren Libiako zeruan ebakiak egiten zebiltzan Taube monoplano haiek. Gero, norabidea aldatu, hegaztiaren mokoa itsasora bidean jarri eta beste hiru utzi zituen jausten Tajoura oasian.

Tomate heldu baten neurria zuten Capelli granadek, eta espoleta hortzekin kenduta askatu zituen Gavottik, eskuz. Egindako kalteak ez ziren, itxura, handiak izan. Ez da ez hildakorik ez zauriturik aipatzen. Erasoaren ostean, ordea, irribarre gaiztoagoa loratuko zaio edonon logika militarri.

Turkiako gobernuak protesta egin zuen. Ospitale batean sartu omen zen bonbetako bat. 1899ko Hagako Itunak galarazi egiten zuela globo aerostatikoetatik leherkariak botatzea. Horixe erantzun zuen Italiak, leitzeko ondo, hala zioela, globoetatik ezetz... baina hitzarmenak ez zioela ezer hegazkinez.

Azaroaren 2ko *Corriere della Sera*-k azalean eman zuen berria: “Aurreneko bonba-jaurtiketa hegazkin batetik”.

Italia inperialaren poeta nazionala zen Gabriele D’Annunzio-k merezia zuen txokoa gordeko zion Gavotti armakideari:

Dunba-hotsa da zero zabalean.
Sai argi baten hegada alderik alde.
Gavottik leherkariak daroaz aldean.

(...)

Eta zu, Gavotti, hor zoaz terraza arinean,
makur, haizearen arrisku-gordean
erasoaren ezjakin den etsaiaren gainean!

Heriok ere badu bere hazia.
Ez da esku bakarra baino behar,
tira egin eta hortz artean duzu ziria.

Gero, ehuleak anezka nola,
edota habailadunak habaila
(baldituen gainean hegaltzarren itzala)

hegalean behera jare doa leherkaria
tupusteko hilkintzara arte; eta erre dizula
dirudi burrunbaren harian bihotz bizia.

D'Annunziok aldarrikatzen duen futurismoak poesia beste maite du gerra.

AZOKA EGUNA BONBEN BEGIAN

(Arrif, 1923)

Belle Epoque zen metropolietan. Artearen eta kulturaren fineziak Parisetik nahinora zabaltzen ziren. 1921. urtean Giulio Douhet koronel italianoak *Il dominio dell'aria* izeneko liburua argitaratu zuen, aireaz jabetzearen garrantziaz. Gabriele D'Annunzio eta Emilio Marinettiren bidetik, Douhet futurista zen, soldadua eta idazlea, eta haren futurismoaren proposamenik behinena hauxe zen: aire indarren eginbidea arerioari ahalik eta kolpe bortitzenak jotzea zen, erreakzionatzeko ahalmenik gabe uzteko. Han behean nor zegoen ondo bereizi beharrik gabe eta errukirik gabe, gerla suntsitzailea era erabatekoa izango zen aurrerantzean.

1923ko uztailean ekin zitzaien iperita bonbardaketei. Hurrengo urtean ugaldu egin ziren, eta ohikoak izan ziren 1927ko uztailera arte. Kabila batzuei egiten zitzaien bereziko eraso honela, Ait Uariageli, baina baita Gomara eta Jebalako kabilei ere, Anjerakori batez ere. Bonbardaketak ez ziren mujadinen kontra bakarrik egiten, etxaldeak eta azokak ere hartzen ziren itutzat. Bereziki estimatuak ziren merkatu egunak, orduantxe batzen zelako inguruetako populazio sakabanatua.

JOSEBA SARRIONANDIA

Hugo Stoltzenberg aleman kimikaria zela tarteko lortu zuen Espainiak iperita edo ziape-gasa Afrika iparraldean Abd el-Krim-en kontra zeraman kanpainarako. Aurrena Alemaniatik, Madrilen bertan fabrikatzea lortu zuen gero. Hegazkinek gerrillaririk gabeko herri gainetan zabaldu zuten, soroak zein iturburuak kutsatu zituzten 1921ean Annual-en espainiar tropek izaniko hondamendiaren ordainetan. Bertakoei *arrhash* deitzen zuten; pozoia, amazigh hizkuntzan.

Azken urteotan ikerlariak argitara emandako datuek oilo ipurdia aterazten dute. Arrifeko kanpainan, 1.680 bonba ere bota ziren egun bakar batean.

Oterik gabe, Beni Urriagelen el-Arbaa azokak gogora ekartzen digu Gernikako azoka. Marokoko estrategia afrikar-militarra

errepikatuko da hamabi urte geroago, bai Gernikako bonbardaketan, bai Durangokoan. Indigena magrebtarren aurkako garbiketa euskaldunen kontra berriro beteko da 1937an. Rif eta Euskadi eskualde matxinoak ziren bietan, garbiketa militar eta estrategia kolonialistaren pentsamoldetik. Jendetza eta herriak sartuak ziren XX. mendeko gerra totalaren bonbardaketen esperimendu erabatekoan. Horrez gain Gernikako sarraskian teknologia alemaniarra agertu zen eta Rifekoetan ere bai, Alfonso XIII. engandik Primo de Riverarengana, Stoltzenberger teknikariengandik Francoren Legioaren soldaduengana (...)

Biztanleria zibilaren aurkako gerra erabatekoa hasita zegoen, XX. mendeko sarraskiak heltzear, aurreiritzi arrazista eta genoizidak ugarituz. 1920an Gerrarako eta Abiaziorako Estatu-idazkari britainiarra zenak, Winston Churchill-ek bere gobernuak jarritako eragozpenei horrela erantzun zien: ‘Ezin ditut mizkeria hauek ulertu gasa erabiltzerakoan. Tribu ez-zibilizatuen aurkako gas pozointsuak erabiltzearen alde nago erabat’.

IGNAZIO AIESTARAN

Marokoko gerrara behartuta bidalitako soldadu espainol haietako bat da Viance. Ingude, borra eta sutegiko gainontzeko lanabesak bazterrean utzi eta bestelako su baten mendean dabil Aragoiko errementaria. Eleberria da *Imán*, baina zenbat duen fikziotik, Ramón J. Sender-ek berak aitortzen du: “*Irudimenak ezer gutxi egin ahal izan du —egiazki, ezer ere ez—. 1920 eta 1925 tarte hartan handik igaro ziren berrehun mila soldaduetako edozeinek sina zitzakeen oharrok. Eta noski, protagonista hara joan ziren langile edo nekazari gebienetan ‘egiazta’ daiteke, zertara zihoazen aztarrenik gabe, besteren bulkadei men eginda, eta egunkarietan agertzen diren heroien miraz”.*

Bonbak osteria ere. Granada-danbatekoak hirurehun, laurehun metrora, ingurua ezin basago desitxuratzen. Isildu dira gure fusilak. Agindu bat. Kanoikadak areagotzen. Hegazkinak berriro. Metrailadore parrastak muino barrena josten. Ordu erdi, ordubete. Eta atzean, itsasorantz, lurra ere jauzika, harkaitza txikitua. (...)

Gure atzean kalibre handiko baterien kanoi-hotsa gero eta nabarmenago; eta airean, trumoi sakon, aldakor, iraunkorra. Jaima kiskalien keak neguko tximinetako egurrarena dakar akordura. Berehala bestelako sunda bat, errea, garratza, eta hor dator botikaria bere bizar eta oskolezko betaurrekoekin, musualdea zapi lohiaz estalita:

— Iperita, koño, iperita da. Hor behean bota dute.

Ikusmina. Jarraituko? Legionario bat —fusila soinean alderik alde, ezker eskumuturra bendatua— atzerantz dator behi eta txa-

hal bati tiraka. Hori du harrapakina. Erretiradan doa, babestu nahi du altxorra gasetatik.

— Garaiz ailegatu naiz —dio keinu eginaz—. Ez du lantegi erraza izango ezer aurkitu nahi duenak. Ganadu guztia dago apatxez gora, sabelak puztuta.(...)

Annual-eko oroitzapenak izutzen du Viance. Ihes egin, ihes. Inork ez du oraindik erasorik jo. Nork erasoko digu baina hurrengo hamar kilometroan dena gasa eta metraila bada?

RAMÓN J. SENDER

Arrifeko gerrak oharrez betearazten du memoria:

Alfonso XIII.a buru zela, Espainiako erresuma izan zen aurrena zibilei hegazkinetatik erasotzen. Eta uste ez bezala, urte batzuk geroago Durango zein Gernikako bonbardaketak aginduko dituzten jeneralak, Arrifeko kanpaina hartan dira.

AIESTARAN, Ignazio, *Walter Benjaminen aingerua Gernikako bonbardaketatik*, Elkar, 2010.
 RADA, Javier; EL IDRISI, Tarik, *Arrbash*, Waskarifilms-Films Nomades, 2008. (Dokumentala)
 SARRIONANDIA, Joseba; *Moroak gara behelaino artean?*, Pamiela, 2010.
 SENDER, Ramón J., *Imán*, Cénit, 1930.

BERBAK ISILDUTAKO BONBARDAKETARI (Durango, 1937)

Sortzez da liburu bitxia César Vallejo perutar idazlearen *Espainia, alden ezazu nigandik kaliz hau*. Bartzelonako mendialdean, Errepublikaren esku zegoen Montserrateko abadian inprimatu zuen Manuel Altolaguirre poetak 1939ko urtarrilean, frankistak bertara iritsi baino egun batzuk lehenago. Bazekien zertan zebilen Altolaguirrek. 38ko azaroan Pablo Nerudaren *Espainia bihotzean* atera zen moldiztegi bertatik.

Kasu bietan soldadu errepublikarrek egin zuten papera, muntatu zituzten moldeak, mugiarazi zituzten makinak. Vallejoren liburuxka egiteko (hamabost poema soil gerraren erdian), esaten da jeneral frankista baten uniformearen erabili zela paper-pastarako. María Zambra-nok arroz-papera zela gogoratzen du, hain mehea non ezin zen bi aldeetatik ondo inprimatu. Juan Larrea bilbotarrak idatzi zion hitzaurrea. Pablo Picassok marrazki bat ezarri zion.

Ordurako hilabeteak ziren Vallejo lurpean zela, Paris ondoko Montrougeko hilerrian. Espainiara gerra-hotsak tentatuta iritsi zen, Valentzian aurrena eta Madrilen ondoren Errepublikak antolatuta zuen Idazle Antifaxisten Batzarrera.

HILETA ERREDOBLEA DURANGOKO ERRAUTSEI

Aita hautsa Españatik igotzen zarena,
Jainkoak salba, libra eta koroa zaitzala,
aita hautsa arimatik goratzen zarena.

Aita hautsa sutatik igoten zarena,
Jainkoak salba, zapata jantz eta tronoa eman diezazula
aita hautsa zeruetan zarena.

Aita hautsa, kearen birloba,
Jainkoak salba eta infinitora gora zaitzala,
aita hautsa, kearen birloba.

Aita hautsa non justoek amaitzen duten,
Jainkoak salba eta lurrera itzul zaitzala,
aita hautsa, non justoek amitzen duten.

Aita hautsa, ahurretan hazten zarena,
Jainkoak salba eta bularrez estal zaitzala
aita hautsa, ezerezarekiko izua.

Aita hautsa, burdinaz osatua,
Jainkoak salba eta gizon itxura eman diezazula,
aita hautsa sutan abiatu zarena.

Aita hautsa, pariaren apreta,
Jainkoak salba eta ez zaitzala sekula be deslot,
Aita hautsa, pariaren apreta.

Aita hautsa barbaroek haizeratzen dutena,
Jainkoak salba eta jainkoez gerrika zaitzala,
aita hautsa atomoek estaltzen dutena.

Aita hautsa, herriaren kubritxeta,
Jainkoak salba zaitzala betirako gaitzetik,
Aita hautsa espāñola, aita gurea.

Aita hautsa futurora zoazena,
Jainkoak salba, gida eta hegalak eman,
Aita hautsa etorkizuna zarena.

(Itzulpena: EDORTA JIMENEZ, 1987)

Euskaraz, urteak beharko dira artean Durangoko bonbardaketak bere poema izan dezan. 1947an eman zuen argitara Baionan Telesforo Monzonek *Gudarien egiñak*:

TABIRA

Euskalerrian, goizean goiz irtetzen
langilleak lanera,
euliak bezalaxe dirala agertzen
andrak eleiza aldera.
Menditik bera neskaxa alai gazte
datoz errira astogain,
gaztain, arrautza, barazki ta esne
dakarzkitea salgai.

Goiz baten Tabirak, esnatzean,
txori beltzak zituan ortzian.
Urbiltzen ari zala aien otsa,
erriak bere gain eriotza!

Etxeak datoz goitik bera
 —arri ta gorputzak batera—
 zaborretan ager ditugu
 zango ta bular beso ta buru

Eleizan kristauak otoitzean:
 Sapaia yausi ta arrapa apian!
 Apaiz zartxo bat da mezalari
 Yauna eskuan dula ilda yausi!
 Ta Yainkoaren Odol Bera
 ixuri zitzaigun lurrera...
 Onelaxe dala bat egin
 aren Odol Erriarenakin!

Erriak:

Dantza ta Guda mendi goietan...
 Aupa mutillak! Aurrera!
 Bakea baitegu biotzetan,
 ez degu iltzeko beldurra!
 Euskalerrri'ko mutil gazteak,
 —Aingeru, naiz ta Gudari—
 gorroto Gabe yausiak dira
 mendigoietan kantari.

Ia hirurehun bonba bota zituen Vittorio Cannaviello-ren Aviazione Legionariak martxoaren 31n eta apirilaren 2an eta 4an, 15.000 kilo leherkari inguru.

336 herritar hil zen erasoetan.

Hala ere, “bonbardaketa isildu” legez ezagutzen da Durangokoa. Itzalak itzalpekoa bezala estal lezake sinboloak errealitatea.

Errautsa urteetan egongo da gordean euskal imajinarioan, Gernikakoaren gerizpean.

DURANGO 1937

Haiei

Ahatz dezagun suntsidura, oinazea, tristura denik ere.

Ez ukitu adreilu hautsiok, ez errauts epelok, ez odol itsaskor hau. Ez entzun sabai hondatu guzi hauen azpitik ailegatzten diren kexu eta biraoak, ez inondiko irrati irabazleren partetik.

Ez usaindu zufrea, ez usaindu gorpu ilunduen hatsa, ez perfume untzi apurturik. Ez ikusiarena egin sulamek argituriko harroin erorien hiri honi begira, haur esku zuri solte bati begira.

Ez pentsatu bare erre legez arrastatzen garenik, ez pentsatu izurriteen edo herese erreketen ondoren bezala oroimin legez ba-

karrik arrastatzen garenik. Ez izutu inguruko eta zeure baitango seinale alarmagarriengatik, hitzak ahaztu dituzulako edota haur esku solteak eskailera hondatuetan barrena, bere amaren bila, bihotza oratu eta bere hatzamar zuriez lauskitzen badizu.

Ahantz dezagun hondamendi guzi hau. Desasosegua utzi eta, imajina dezagun mundua sosegatua eta ederra dela. Imajina dezagun bizirik gaudela.

JOSEBA SARRIONANDIA

ITURRIAGA, Unai; SANVI, Alex, *Udaberririk ankerrena*, Durango 1936 Kultur Elkartea-Elkar, 2011.

JIMENEZ, Edorta, “César Vallejo, ahots anaia Euskadiko gerraz”, *Susa-20*, 1987.

VALLEJO, César, *España, aparta de mi este cáliz*, Cátedra, 1988.

SARRIONANDIA, Joseba: *Ez gara geure baitakoak*, Pamiela, 1989.

XX, *Durango, isildutako bonbardaketa*, Dygital-EITB-Durangoko Udala, 2007. (Dokumentala)

HERRI MARTIRIRIK BADA

(Gernika, 1937)

Sinbologia aldetik baina, gerora Txekiako Lidice legez, Gernika izango da “hiribildu martiria”. Gernika esatea heriotza esatea da, sua eta kea, hegazkin militarren hegalepean hauts bihurtu nahi den jendea. Noiz eta, Arrifren legez, azoka egun batez ostera ere. Gernikan, Durangon bezala, esneketaria da biktima, tipula erosten den etxeoandrea, zapatariaren haur jaio berria... Bonbak erruten dituzten hegazkinak herri xehearen zeru gainean. Ordutik, Gernikaren izena haizea bezain arin zabalduko da munduko idazle antifaxisten artean.

Durangori bezalaxe, goitik beherako poema eskainiko dio César Vallejok Gernikari ere.

Gerora Nobel saria izango den Miguel Angel Asturias guatemalarrak, Gernika akorduan, olerki hunkigarria eskainiko zien 1937an Asturiasko meatzariei, *Pasako gara*:

Gernika suntsitzetik zetozenak
geure haragi-mamitan birrindua, geure mamitan
geure mamitan;
Inperioa gasez deuseztatzetik zetozenek
gure bularrak aurkitu zituzten

Poeta amerikarrak hona begira kantuz!

Bi ditu izan ere ikurrak Gernikak sufrimenduaren sinbolo izaten lagundu diotenak. Bata, aurreko mendean William Wordsworth ingeles poeta erromantikoa liluratu zuen arbola santua (“Gernikako Arbola”, 1810). Bestea, Picassoren *Guernica* koadroa, 1937ko Paris-ko Erakustazokan Espainiako Errepublikaren pabiloian aurkeztu zena.

Hala, arbolaren bueltan bildutako herriari kantatuko dio nostalgiaz Gabriela Mistralek “*Berriz izango da berde eta zabala/ haritza, gure haritza/ metrailak horzkatua...*”; arnas emale Miguel Hernandezek: “*Euzkadin jausi dira nik dakit ba zenbat lehoi/ eta hiri bat, inbasioak suntsituak./ Haren isil-hatsak indartzen gaitu*”; lekukotzaren indarrez

Gabriel Celayak: “*Hain erraza zirudien bakeak! Ez ziren han aditzen/ ez gezurra ez herra*”...

Picassoren koadroa min honen guztiaren lagungarri dator. Zezenak, zaldiak, gudariak, emakumeak, haurrak, txoriak... liluratuko ditu Rafael Alberti, Jose Angel Valente, Fernando Lamberg, Blas de Otero edota Carlos de Oliveira...

New Yorken, “Gernikako aingeruen” gorpuek ez diote Norman Rosten-i lotan uzten. Poema xaloari Peter Schickele-k erantsiko dio musika. Eta Joan Baez-ek ahotsa 1968an:

GERNIKAN

Gernikan espaloi gainetan txukun
soinez soin haur hilak
euren soineko zuri almidonatuekin
euren soinekotxo errukarriekin.
Bular eta bekokian zulotxoak
bertatik sartuta herio
trumoi bat bezala, uda-jolasetan
olgetan zebiltzala.
Ez egin negarrik haiengatik, ama,
betirako joan dira santuen zerura
Jainkoak beteko dizkie
bala-zuloak goxokiz.

Frantzian, urteak dira Gernika suntsituaren irudiek poetaren barrenak inarrosi zituela. Paul Éluard-ek 1937an bertan eman zuen argitara *Gernikaren garaipena* poema, *Cahier d'art* aldizkarian, Georges Auric-en partitura zuela lagun. Handik urte batzuetara, Alain Resnais-ek eta Robert Hessens-ek hitzotan oinarritutako hamahiru minutuko filma obratu zuten, *Guernica* (1950). Maria Casarès-ek ezarri zion ahotsa Éluardi.

GERNIKAREN GARAIPENA

I

Mundu ederra etxolak
gaua eta soroak

II

Aurpegi onak sutarako aurpegi onak finean
Errefusentzat gauarentzat iraintzeko kolpatzeko

III

Aurpegi orotarako on
Hara hutsa duzue so
Etsenplu izanen da zuen heriotza

IV

Heriotza bihotz-ikara

V

Ordainarazi dizuete ogia
Ortzia lurra ura loa
Eta zuen bizitzaren
Miseria

VI

Elkarkidetza desio zutela zioten
Indartsuekin zeken eroak epaitzen zituzten
Eskeko zebiltzan sos bat bitan banatuz
Gorpuak gurtzen zituzten
Gizalegearen zamapean

VII

Tematzen dira neurritz kanpo ari dira ez dira mundu honetako

VIII

Emazteek haurrek altxor berdina dute
Bedatseko hosto berdekoa eta esne garbikoa
Eta iraupenekoa
Beren begi gardenetan

IX

Emazteek haurrek altxor berdina dute
Begietan
Gizonek ahal bezala defendatzen dutena

X

Emazteek haurrek larrosa gorri berdinak dituzte
Begietan
Odol ikur bana

XI

Beldurra eta ausardia bizitzeko eta hiltzeko
Heriotza hain zaila eta hain erraza

XII

Gizonontzat altxor kantatua
Gizonontzat altxor alferrikaldua

XIII

Gizon zinezkoak zeinentzat desesperantzak
Esperantzaren su ireskorra elikatzen duen
Zabal dezagun elkarrekin etorkizunaren azken kimua

XIV

Pariak herio lurra eta higuina
 Gure etsaiena dute kolore
 Bakarra gure gauarena
 Gurea izanen da garaipena

(Itzulpena: MIKEL ANTZA, Lyon-Corbas, 2011)

Uztaritzeko apaizgaitegian, Ganix Dihartzek kantu aireko poema idatzi du Hegoaldetik datorkion erre-usainak amorrarazia. Hamazortzi urte ditu. Amaitu duenean, lehenbiziko aldiz sinatu du lana handik atzera utziko ez duen izenez, *Iratzeder*.

GERNIKA!
 Zure kantu sarkorra
 Entzun dut gau huntan:
 Aditu izan nuen
 Jadanik askotan:
 Bozkarioz bihotza
 Gaingitzen zitzaitan.
 Gaur egin dut gogotik
 Nigar ilunbetan...
 GERNIKA!

GERNIKA!
 Ikusten zaitut hilen
 herria iduri;
 Etxe aurtikituz baizik
 ez zare igeri...
 Udaberria irriz
 dago munduari:
 Harri beltzetan lore
 guti zait ageri.
 GERNIKA!

GERNIKA!
 Orain datza ohiko
 Kartago bezala,
 Paret beltz handi batzu
 baizik ez dauzkala.
 Jazko Euskaldun-iri
 haren gorputz hila
 Nigarrik egin gabe
 nola ikus, nola?
 GERNIKA!

GERNIKA!
 Xorätzen iluntzen daut
 hitz horrek bihotza.
 Mendek jakinen dute
 haren zorigaitza...
 Numanze ta Kartagoz
 ez gaitzke mintza,
 Goraki erran gabe
 Euskadin, han, datza:
 GERNIKA!

1937ko apirilaren 26az geroztik Gernika dioenak apokalipsia dio. Gerora mundu zabalean lurrarekin berdindutako edozein hiri da, Santi Onandiak ez zukeen bestela idatziko Hiroshiman:

Zabor, arri, zirpil, ondarrez kalea,
 Aizetan eriotz dabil arramaka...
 ta, umea besoan, zelako irudia!,
 garrasi bizitan, nora oa, neska?
 Euskal uriaren
 miñaz oarturik,
 negar zotin-eunez
 estaltzen dau goitik.

Izango da aire eraso gehiago, Bilbon-eta. Oskar Kokoschka-ren *Lagundu euskal haurrei* (1937) urgentziazko akuareleri begira, txekiar margolariak Onaindiaren berbak nahi izan zituela dirudi. Hondar artean, animalia lehertuak atzean, ama bat ageri da, ume bat besoetan, handixeago bat duela eskutik. Ezkerreko ertzean, hegazkin bat, su eta herio zerutik. Euskal imajinariotik aldenduko ez diren herioren hegala dira:

—Ama, eztot gaur ikusten
 geure ikurriña
 goiz gustitan bezela mendi ganian.
 ¿Zer jaso ete da?

—Ene seme egazkiñak
 atzo ixan dira ainbeste
 bai, ain sarritan!

AA, *Susa-20*, 1987.

ATXAGA, Bernardo, *Markak, Gernika 1937*, Pamiela, 2007.

IRATZEDER, “Gernika”, *Pindar eta lanbo*, Ezkila, 1947.

IRIARTE, Jose, *Bikila*, “Picassoren Gernika” (Imanol&Klabelin Komik, IZ, *Sentimentuen auspoz*), 1979.

MANCIET, Bernard, *Lo didier de Guernica*, Maiatz, 2005.

MONZON, Telesforo, *Gudarien egiñak*, Graf. Moderne, 1947.

ONAINDIA, “Euria ta uria”, *Goiznabar*, Karmel Idaztiak, 1971.

TAPIA, Joseba, *Agur Intxorta maite*, Gaztelupeko hotsak, 2001 (CDa eta liburuxka)

UNZUETA, Sorne, “Artxanda”, *Euzko Gogo*, 1952.

EDERTASUNA ERRE ZENEKOA

(Dresden, 1945)

Gertaerak eskean zetozen, eman beharra zegoen izena herriak aire-erasoz suntsitzeari. Joseph Goebbels-ek, Hitlerren gobernuko propaganda ministroak, ez zuen nekerik hartu topatzen. Historia bera etorriko zitzaion bila: “coventrizatu”.

Coventryk bonbardaketa bat baino gehiago jasan zituen Bigarren Mundu Gerran. Estakurua, bertan zirela britainiarren hegazkin-fabrika garrantzitsuenak. Milaka bonba bota zituen Alemaniako aire-armadak hiriaren gainera 1940ko azaroan. Fabrikez gain, lau milatik gora etxe suntsitu zituzten hegazkinak.

“*Coventrizatu* aditza desagertu egin zen, ordea”, azpimarratzen du Victor Klemperer irakasle eta filologoak *LTI Hirugarren Reicharen hizkera* eguneroko-liburuan: “egunez egun etsaien ‘pirata jarduna eta gangsterismoa’ madarikatzen zuen hura isildu egin zen (...) *Coventrizatu* aditza Alemaniako hirien hondakinen azpian erori zen”.

Ondo daki zertan ari den Klempererrek. Dresdenen zen naziek unibertsitatean zuen katedra uztera behartu zutenean. Gerra ondoren ere, harri artean loratzen hasitako Dresdenen bizi izan zen. Dresdenen hil zen 1960an.

1945eko otsailaren 13tik 15era suntsitu zen Dresden. Aliatuek lau mila tona bonba inguru bota zituztela kalkulatu da. Hildakoen kopurua, herri bonbardatu guztietan bezala, ezin izan da egundo zehaztu.

“Ez dago arranguratzeko arrazoirik. Azken batean geu hasi ginen Coventry eta Rotterdamekin” irakur dakiok Heinz Czechowski-ri. Dresdenen zen bonbardaketa egunean. Egun ere, arazoa ez da nolanahikoa alemaniar idazlearentzat: nola salatu bizilagunen kontrako eraso norberaren gobernuak Auschwitz sortu duenean, historiaren bertsio laburtuak herritar guztiak berdintzen dituztenean, oraindik urtero naziek bonbardaketa eguna “oroitzen” dutenean.

Erruaren harra da. *Mythos Dresden*.

Haurrei moduan kontatua, samurtasunez idatzi du hondamendi hartaz Erich Kästner-ek:

Bai, Dresden hiri ederra zen. Sinetsidazue. Sinetsi behar didazue. Zuetako inor, aita oso aberatsa badu ere, ezin igo daiteke trenera eta bertara joan egiaztatza, dagoeneko Dresden ez dagoelako. Hondar batzuk izan ezik, desagertua da lur azaletik. Munduko Bigarren Gerrak ezabatu zuen gau batean, esku-keinu bakar batez. Mendeak behar izan ziren edertasun paregabe hura sortzeko. Nahikoa izen ziren ordu batzuk lurraren gainetik urratzeko. 1945eko otsailaren 13an gertatu zen hori. Zortziehun hegazkin ibili ziren bonba jaurtiketan. Eta han basamortua baino ez zuten utzi. Hondar haiekin, hondora zihoan transatlantikoa zirudien.

Handik bi urtera, basamortu infinitu horren erdian nintzen, eta ez nekien non nengoen. Hautsez betetako adreilu hautsi artean kale-idazkun bat zegoen. “Prager Straße” irakurri ahal izan nuen, ez nekerik gabe. Prager Straße-n nengoen? Prager Straße ospetsuan? Nire haurtzaroko kalerik ederrenean? Erakusleihu ederrenak zituen kalean? Gabonetan politen egoten zen kalean? Eta ni hustasun hartan, hainbeste kilometro luze, hainbeste kilometro zabal. Adreiluzko lekar hartan. Ezerezaren begian.

Oraindik orain, eztabaidan ari dira potentzia handietako gobernuak, ea nork hil zuen Dresdenen. Eztabaidan, ezerez horren azpian berrogeita hamar, ehun edo berrehun mila diren hildakoak. Eta inork ez du horren egile izan nahi. Bakoitzak dio bestea izan zela. Baina, zertarako eztabaida hori? Horrekin ez diozue Dresdeni bizia itzuliko. Ez edertasuna ezta hildakoak ere. Hemen-dik atzera, zigor itzazue gobernuak, ez herriak. Eta ez beranduegi, berehala baizik. Den baino errazago ematen duela? Ez. Dirudien baino errazagoa da.

VONNEGUT, Kurt, *Matadero cinco*, Anagrama, 1969.

KÄSTNER, Erich: *Als ich ein kleiner Junge war*, Dressler, 1975 [1957].

KLEMPERER, Victor, *LTI La lengua del Tercer Reich*, Ed. Minúscula, 2001.

EINSTEIN-EN AMESGAIZTOA

(Hiroshima, Nagasaki, 1945)

Durangotik Coventryra eta Gernikatik Dresdenera, logika bera: herriak —eta beraz herritarrak— bonbardatu egin daitezke. Aitzakia baino ez da aurkitu behar, edo beharbada hori ere ez. Izuaren uhina suntsiketa militarra bezain arma indartsua da, horra bonbaz bonba, ezta ez eztanda gobernuetako bulegoetan ikasi dena.

Dena ez zegoen asmatua, baina. Logikak koska bat gehiago esutzea, bazuen.

HUTS EGINIKO POEMA

Nire lagunak
poeta bera ere
poetak deitu zituen.

Poema bat idatzi behar da
bonba atomikoaz
halako izugarrikeriarik!
esan zigun
izugarrikeriarik izugarriena
da esan zigun,
akabua da, ezereza,
heriotza da.

Ez da, esan zigun,
ohean bakarrik hiltzea
malkoak eta familia
sabaia eta hormak
inguruan.
Ez da bala bat iristea
galdua edo aurkitua
arnasa etetera,
zure loan sartzera.

Ez da minbiziak seinalatzea
jatea,
zulatzea.

Ez da zure heriotza,
 zurea,
 irabazi zenuen ezereza,
 aire gaiztotua da,
 den ororen
 hondakina da,
 ororena.

Inork ez du inorengatik
 negarrik egingo,
 inork ez du inoren
 malkorik izango.

Eta hori da izugarriena,
 lekukorik gabeko heriotza,
 ez azken hitzik
 ez inor bizirik.
 Heriotza heriotza oro
 heriotza oro.

Ulertzen?

Poema bat idatzi behar da
 bonba atomikoaz.

Isilik gelditu ginen
 ahoak zabalik,
 izua irentsi genuen
 izoztutako tua balitz legez,
 eta gero etxera
 joan ginen denok
 kontsigna betetzera.

Hitz ematen dut saiatu naizela
 saiatzen ari naizela,
 baina bonba ekarri gogora
 eta erori egiten zait
 arkatza eskutik.

Ezin dut.

Lagun poetari
 ezin dudala esango diot.

MARIO BENEDETTI

1945eko abuztuaren 6an, goizaldeko hirurak laurden gutxi ziren Paul Tibbets pilotua Tinian uharteko basetik aireratu zenean. Hamabi gizon zihoazen B-29 bonbaketariaren barruan; haietatik lau, zien-

tzialariak. 12 kilotoneko uranio lehegailua zeraman hegazkinak sabelpean, izen ezin ergelagoa ere bazuena bestalde: *Little Boy*. Abioia *Enola Gay* deitzen zen, Tibbetsen ama bezalaxe.

Goizeko zortziak eta laurden pasatxo ziren, Hiroshima gainean zirela, 9.000 metrotik askatu zutenean. 43 segundo ondoren, Little Boy Shima ospitalearen bertikalean lehertu zen, lurretik 580 metrora.

ABUZTUAK 6

Nola ahaztuko dut ba oinaztargi hura!
 Hogeita hamar mila lagun desagertu ziren lipar batean
 lehertutako berrogeita hamar mila
 hildakoren deiadarrak isildu

ke horixkan barrena kiribilka
 eraikin birrinduak, zubi eraitsiak
 bagoi beteak kiskaliak
 hamaika teila harri Hiroshimako hondakin kiskali mulko

handik gutxira azala zarpaila legez zintzilik
 eskuak bularren kontra estu
 isuritako burmuinak oinazkatzen
 erretako oihal zerrendak bizkarra biltzen
 soin biluziak trumilka eta negarrez

gorputzak arma plazan Jizoren estatuatxoak balira bezala
 jendea elkarren gainean ibai ertzean
 lotutako txalupetara arrastaka igotzen
 eguzki errearen pean orduak igaro arau hilotz bihurtzen
 arratseko zerua zulatzen zuen gar betean

ama eta anaia gaztea etxe hondarren pean
 bizirik harrapatu zituen herri inguruak
 sutan egiten dute dirdira irazkinen erdian
 armategiaren zoru gainean
 ihes egitea lortu duten neska ikasleak ilaran
 buruak ile gabe, azal zambrotuak
 begi lehertuak, sabel puztuak
 zarata hartan zeren bila nenbilen ni
 goizeko argia
 zirkinik ez inork
 kirats geldo hartan ezer ere ez
 uliak besterik metalezko azpilen kontra

nola ahaztu isiltasun hura
 hirurehun mila biztanleko hiria osorik
 hartzen zuena?
 nola ahaztu baretasun hartan

gure bihotz-arimak hautsi arteko
 itxaropen hura
 gehiago itzuliko ez diren
 emakumeen eta haurren betzulo zuriak?

SANKICHI TOGE

Kopuruak ez dira egundo bonbak bezain zorrotzak. 70.000 herritar hil ziren behetik jota leherketa egunean. Ondorengo urteetan beste horrenbeste eta gehiago hil ziren erradiazioak eragindako minbiziak haginkatuta, Sankichi Toge bera tartean.

Hiru egunera, beste bonba bat bota zuten Estatu Batuek Nagasakiren gainean. *Fat Man* deitu zuten. 1945a amaitzerako, 80.000 ziren hildakoak.

Alemanian ez bezala, asko dira Hiroshiman nola Nagasakin gertatutakoa kontatu beharra sentitu zuten idazleak: Sankichi Toge, Tamiki Hara, Ota Yoko, Oda Makoto, Masuji Ibuse, Ineko Sata, Hiroko Takenishi, Kyoko Hayashi, Katsuzo Oda, Mitsuharu Inoue, Akiya Utaka... *hibakushak* dira, bizirik atera direnak.

Irabazleek galdekatu egin zituzten, zentsura ezarri zieten, argitaratzea debekatu. Eta idazleen erraietan, Holokaustoaren osteko kezka bera, Theodor W. Adorno-ren teoriarik eta Paul Celan-en praktika poetikoan ageri den obsesio eta ondorio berbera, “nola adierazi izua isiltasunaren bidez ez bada”.

Hitzek duten esanahia ere galtzen duten esperientzia izan da, ezinezkoa da forma ematea minari.

Hona nire sinesmen guztia
 hitzak isiltasunaren baitan,
 arriskuz betetako hitzak.

AKIYA UTAKA

Yoko Ota-k idazletzaren arduraren neurria ematen du:

Seguru asko ez zen zaila izango gertatuaren mingotsa ‘infernu’ bezalako hitzen bidez erakusteko gai izan bagina. Nik, ordea, ezin nuen egia errepresentatu lehenago terminologia berriarik sortu gabe.

Genbaku bungaku deitzen da, *Bonba atomikoaren literatura*.

“Komun bati esker nago bizirik” gogoratzen du Tamiki Hara-k.

Ez nuke asmatuko esaten zenbat segundo pasatu ziren dena gertatu arte; bat-batean hots uhin baten burrunba buru barruan. Gero, dena ilundu zen. Senez, deiadar egin nuen, eskuak aurpe-

gian nituela jaiki nintzen. Gauzak bata bestearen kontra jotzen, ekaitz batek astinduak bezalaxe. Infernua bezain beltz zegoen dena. Ez neukan aztarrenik ere zer ari zen gertatzen. Haztamuka, korridorera zeraman atea leherrarazi nuen. Herioan, garbi entzun ahal izan nituen zaratotsaren erdian neure agonia uluak, baina ezinezkoa zitzaidan ezer ikustea. Hala ere, azkenik kanpoan, itzalen perfila ikusten hasi nintzen argi hilduratsu haren menpean. Txikizioaren ertzak ziren. Orduantxe hasi zitzaizkidan sentipenak zehazten.

Aurrean nuenak amesgaiztorik okerrenetik sortua zirudien. Hasieratik, leherketaren kolpea buruan jaso eta dena ilunpetan galdu arte, banekien ez nengoela hilda.

Eta Masuji Ibuse-k:

Galipota erantsi egiten zen zapata zoletan eta oinez ibiltzea ere zail egiten zen. Kable elektrikoen beruna urtuta zegoen, eta jarioan erortzen zen behegaineraino. Hala zegoen bide ertza, zilar koloreko tanta lodiz zipriztindua. Errepide nagusian, tranbien hari elektrikoari eusten zioten altzairuzko posteak okertu egin ziren, eta kableak, erdibituta, zintzilik zeuden. Ez nintzen haietako bakar batera inguratu, bizirik egongo ziren beldurrez.

Inguru hartan, etorbidean etzandako gorpuak dezentez gutxiago ziren. Hamaika eratan zeuden barreiatuak, baina gehienak —ehuneko laurogei baino gehiago—, ahuspez. Salbuespen ia bakarra andre-gizon batzuen zen, ahoz gora zeuden biak Shirakamiko santutegirako tranbia-geltokiko segurtasun gunearen alboan, belaunak tolestuta eta besoak euren soinekiko diagonalean luze. Biak erabat biluzik eta kiskalita zeuden, eta ipurmasailen azpian gorotz-putzu bana zuten. Inon ikusi gabea nintzen halakorik. Biek zuten buruko zein gorputzeko ilea errea, eta profilek baino ez zuten laguntzen bereizten —bularrek, esaterako—, zein zen gizonzkoa eta zein emakumea.

Eleberriak dira, baina fikzioari nekeza egiten zaio zirrikituren bat aurkitzea. Leherketaren durundia, etxe suntsituen hautsa, burdina-oren okerra eta hildako bizilagunak lumaren tintarekin nahastu dira, sekula gehiago ez bereizteko.

BENEDETTI, Mario, *Noción de patria-4*, Visor, 1999.

DE MORAES, Vinicius, “Rosa de Hiroshima”, *Obra poética*, Afranio Coutinho, 1968.

HARA, Tamiki, *Flores de verano*, Impedimenta, 2011.

IBUSE, Masuji, *Lluvia negra*, Libros del Asteroide, 2007.

OÉ, Kenzaburo, *Cuadernos de Hiroshima*, Anagrama, 2011.

TOGE, Sankichi, *Poèmes de la bombe atomique*, Edit. Laurence Teper, 2008.

GERRA PSIKODELIKO HURA (Vietnam, 1964-1975)

Andrea, nola duzu izena? —Ez dakit.
 Zenbat urte dituzu, nongoa zara? —Ez dakit.
 Zergatik egin duzu zulo hau? —Ez dakit.
 Noiztik zabilta gordean? —Ez dakit.
 Zergatik egin diozu haginka nire atzamarrari? —Ez dakit.
 Ez dakizu ez dizugula ezer egingo? —Ez dakit.
 Noren alde zaude? —Ez dakit.
 Gerran gaude, aukera egin beharra duzu. —Ez dakit.
 Zu bizi zinen herrixka, bada oraindik? —Ez dakit.
 Hauek dira zure seme-alabak? — Bai.

WISLAWA SZYMBORSKA

Vietnamen estetika erantsiko zaio izugarrikeriari. Napalmak ikusgarriagoak egiten ditu bonben oihartzunak; gar bizia da errautsaren goibelaren kontra; erre usaina bera, mingotsa da uranioaren aldean. Argazkiak koloretan heltzen diren aurreneko gerra da: ederra da sua oihan berdean gora.

Prentsa mozkortuko duen gerra da Vietnamekoa. Azal kiskaliaren sunda egunkari paperean, ume biluziak negarrez datozkio irakurleari errepidean barrena. Harrapatu egiten du, une batez despolitizatu eta ulertu egiten du argazkian ageri direnen sufrimendua, ez alferrik, munduan bizi baita bera ere, eta badira unibertsalak diren sentimenduak. Inoiz, amorruek harrapatzen du. Tarteka, zerbait egin beharrak lotzen.

Seguruenik pop kulturak, basakeria erakusteko zein haren zatarra edertzeko, beretzat hartzen duen aurreneko gerra da Vietnamekoa. Kantautoreek salatuko dute, eta luze gabe, galtzaileek irabazleen filmekin entretenituko dute mundua.

Indotxina munduan,/ itsaso bestaldean,
 han lehertzen da lorea/ genozidio errean.
 Ilargia danbaka,/ mundua deiadarka.
 Bakean bizitzeko eskubidea.

VICTOR JARA

Olerkigintza apainduak kantuari utziko dio tokia mundua etxera sartu zaigun Euskal Herri honetan ere:

Polizi ta harmada/ pentsaturik aski zela/
Ezin nehurtu izandu zuten/ herrien indarra.

Vietnam etzen bakarra/ guztiok senide gara/
inperialisten kontrako dena/ gure borroka da.

JOSEMARI 'TXATO' AGIRRE

Eta Vietnamen, Hue deitzen da Gernika:

Hezurrez hezur defenditutako Hue
Hue xehatua Hue eguzki hil-oihal
azken garreraino eutsitako Hue
Hue katu begi hondamendiaren zirritu artean
Hue orain memoria berdexkan gatzatua
amesgaizto zeruko putzu hain tristeren batean
oihuka negar dagien katua izara pozoitsu
non arroza barik
odola jausten den
eta euli buruarekin itzultzen den gizona
eta ez du ezer gehiagorik ulertzen ez ardoa ez
bere eskuak gauaren disekzio lazgarrian

ENRIQUE MOLINA

Sentipen bitxia da irakurleak duena. Heldu zaion ia gutzia Estatu Batuetatik jaso du, (Norman Mailer, John Irving, Lee K. Abbott, Neil Sheehan...), gainontzekoa —oso gutxi: kanturen bat, saiakeraren bat— aldirietatik. Zerrenda egiten hasi denean ohartu da ez duela vietnamdarrren ahotsik entzun belaunaldi oso bat markatu zuen gerraz.

Bila hasi eta eleberri bakarra lortu ahal izan du, Bao Ninh-en *Gerraren mina*. Poesian, bospasei izen, guztiak Habanako argitaletxeen bidez heldu zaizkionak: Huy Can, Te Hanh, Nguyen Dinh Thi, Duon Huong Ly, Trang Dang Khoa...

GALDERAK LURPEKO ATERPEAN

Ama, noiz etsiko diote bonbek,
lur gainera igo ahal izateko?
(zertarako, semetxoa?)
— Zerua nahi dut ikusi,
hodeia, berdea da?
Eguzkia nahi dut ikusi,
gorria du izpia?

Ama, noiz etsiko diote bonbek,
 lur gainera igo ahal izateko?
 (zertarako, semetxoa?)
 — Zuhaitza nahi dut ikusi,
 berria du hostoa?
 Lorea nahi dut ikusi,
 badu usainik?

Ama, noiz etsiko diote bonbek
 lur gainera igo ahal izateko?
 (zertarako, semetxoa?)
 — Bidea nahi dut ikusi,
 nora darama?
 Gure herria nahi dut ikusi,
 bada oraindik lorategirik?

Ama, noiz etsiko diote bonbek,
 lur gainera igo ahal izateko?
 (zertarako, semetxoa?)
 — Osaba-izebak nahi ditut ikusi,
 nola egiten diete aurre arerioei?
 Yankia nahi dut ikusi,
 badu gizakiaren antzik?

TE HANH

Testu naif, xalo edota heroikoegiak guztiak edonola ere, epika era bat baztertu eta helikopteroen erasoak Wagnerrekin eta napalma Jim Morrison eta marine surflariarekin nahasten ohitu denarentzat.

AGIRRE, Josemari *Txato*, “Vietnam 1970” (Imanol, *Herriak ez du barkatuko*, Le chant du monde, 1976).

MOLINA, Enrique, *Monzón napalm*, Ediciones Sunda, 1968.

FERREIRO, Celso Emilio, “Digo Viet Nam e basta”, *Viaxe ao país dos ananos*, Ciencia Nueva, 1968.

SZYMBORSKA, Wislawa, “Vietnam”, *Poems New and Collected 1957-1997*, Harcourt, 1998.
 XX, *Poesía Vietnamita*, Editorial arte y literatura, 1984.

IDATZI, BAINA ZER (nonahi, noiznahi)

Ali Ahmad Said Esbe, *Adonis*-ek, Beiruten 1982an:

Eta denbora badoa
hilen hezurrezko eskumakila daramala.
Insomnioaren ahoak
zintzur egiten dio gauari.

Itxuraz eguzkiak bere argitasunari:
itsutu nazazu
ez dezadan ikusi.

Eguna gauaren beldur da,
gaua gauetik ihesi dabil,
eguzkiak begiak igurtzi eta hasperen dagi:
ezin du ikusten duena sinetsi.

Eskerrak
suteetako kearekin nahastuta
eztitzen duen hautsari,
bonbatik bonbarako tarteari,
nire urratsak eusteari
uzten ez dioten baldosei.
Egonarria erakusten duen haitzari.

Nigan da leherketen mozkorraldia,
zarataren horditzea,
eta neure aurpegia desarratzen dut
aukeren espazioan barrena.

Hil da argia.
Nire ametsen argizagia piztera noa.

Har nazazu, maitea,
eta estutu.

Izet Sarajlic-ek, Alma Lazarevska-ren ipuin bateko Sarajevo se-
tiatuan 90eko hamarkadako egunen batean:

Distantziaren teoria
beti berandu heltzen direnek asmatu zuten,
inoiz arriskurik hartzen ez duten horiek.

Ni astelehenetan astelehenez
mintzatu behar dela uste dutenetakoa naiz;
asteartean baliteke beranduegi izatea.

Ez da erraza, jakina,
poemak zulo batean sartuta idaztea
kanpoan eztrandak direnean.
Baina are zailagoa litzateke
idatzi gabe egotea.

Mahmud Darwish-ek, Ramalan 2002an:

Hemen, muinoen magalean, egunsentiaren eta denboraren aurrez aurre,
hautsitako itzaletatik gertu,
gatibuek egiten dutena egiten dugu,
langabetuek egiten dutena:
itxaropena landu.

Egunsentirako gertu dagoen herri bat.
Garaipen unearen zelatan gabiltzalako
gara uste aldean motzak:
gaurik ez bonbardaketak argitutako gauean.
Beilan ditugu etsaiak eta etsaiok dira guretzako argia
pizten dutenak babeslekuen iluntasunean.

Hemen ez da “ni”rik.
Hemen Adanek buztinaren hautsa du gogoan.

Heriotzaren ertzean dio:
ez dut galtzeko orbain gehiago:
libre, ezin gertuago dut askatasuna. Eskuan dut etorkizuna.
Laster naiz neure bizitzan,
libre jaioko naiz, gurasorik gabe,
eta izentzat letra urdinkarak hautatuko ditut...

Hemen, kea gora bidean doala, etxeko mailetan,
ez da denborarik denborarentzat.
Jainkoarengana igotzen diren horiek bezala egiten dugu:
mina ahazten dugu.

Ez da hemen Homeroren oihartzunik.
 Ate joka ditugu mitoak, beharrea joka.
 Ez da hemen Homeroren oihartzunik. Hemen, jeneral bat
 azterka dabil lo dagoen Estatu baten bila
 etortzeko dagoen Troia baten hondakinetan.

Zuek, atarietan goititzen zaretenok, sartu,
 edan gurekin arabiar kafea
 geu bezalakoak zaretela ikusiko duzue
 zuek, etxe atarietan goititzen zaretenok,
 zoazte gure goizetatik,
 seguru egon behar dugu zuek
 bezain pertsona garela!

Hegazkinak joaten direnean, hegan egiten dute usoek
 zuri, zuri, masailak garbitzen dizkiote zeruari
 hegal askeez, hala hartzen dute ostera ere
 eterraren eta jolasaren dirdira eta jabetza. Ai, zerua
 benetakoa balitz! (esan dit bonba biren artean
 igaro den gizon batek)

Nekostek, soldaduen atzean, minareteek babesten dute
 goiko zerua erortzetik. Burdinazko hesian bestalde
 soldaduak txiza eginean ari dira —gudu orgak zaintzen ditu—
 eta udazken egunak igandeko meza osteko eliza bat
 bezalako kale zabalean amaitzen du pasera urrezkoa...

[Hiltzaile bati] Biktimaren aurpegiari begiratu izan bazenio
 gogoeta egin izan bazenu, zeure amaz oroituko zinateke gas
 ganbera barruan, askatua zinateke fusilaren arrazoietatik eta aldatua
 zenuke dagoeneko iritzia: nortasuna ez da horrela berreskuratzen.

Behe lainoa ilunpe da, laranjak eta promesaz beteriko emakumeak
 zuritutako behe laino zuri, trinkoak.

Zenbat poema idatzi zen Groznin azken bonba jausi artean?

Eta ondoren? Bakar bat ere ez?

Eta Bagdaden? Eta Basoran? Eta Falujan?

Afganistanen, ikusezinak izateaz gain, benetan dira analfabetoak
 idazle guztiak?

Eta Libian, Gavottiren eta D'Annunzioren balentriaren mendeu-
 rrean?

Kurdistanen inork ez du *hegazti* eta *hegazkin* berbekin jolasik
 egin?

NATOko hegazkinek 1999ko maiatzean errefuxiatuen konboi
 hura lehertu zutelarik Kosovon, inork ez zuen eskua dantzatzeko beha-
 rrik sentitu?

Nork ekarri behar ditu gurera Alena Vrbová-ren hitzak?

Hondurasen zein Kolonbian gobernuak komunitate indigenak bonbardatzen dituenean, Honduras zein Kolonbiako idazle guztiek isiltasunaren oihanean babestea erabaki dute?

Darfur, non dago? Ez da Google Earth-en ageri?

Eta Siriako Homs? Ez da ezer ikuskizunaz bestalde?

Globalizazioa diogunean, isiltasun globala diogu?

Berlinen, Volker Braun ordenagailu aurrean dago baina zeruaren irla du begietan. Dohain berezia du: lotu egiten ditu gertaerak, logika militarrek eta hauen hegalpeko gizabanakoak. Hemen gertatuak beste herri batean izango du itzala. Hegazkinak munduko ertzak errazago lotzeko daude.

ADONIS, *Célébrations*, La Différence, 1991.

BRAUN, Wolker, *Festrede Volker Braun am 31. März 2006 in der Semperoper Dresden zum Festakt anlässlich der Ersterwähnung Dresdens vor 800 Jahren*, 2006.

DARWISH, Mahmoud, *État de siège*, Éditions Actes Sud/Sindbad, 2004.

LAZAREVSKA, Alma, *La morte au Musée d'art moderne*, Editions Mode Est-Ouest, 2009.

SARAJLIC, Izet, *Le livre des adieux. Recueil de guerre sarajévien*, Balma, N&C, 1997.

PILOTUAREN BEGIAK

(hondar hitza)

Bada airetiko bonbardaketen kontu honetan itsutzeraino harrapa zaitzakeen obsesiorik. Neu ere saiatu izan inoiz pilotuen tokian jartzen. George Steer kazetariak argi printza bat bezala utzi zigun txikizioaren lekuko izan zirenen durduzamendua *Gernikako arbola* liburuan: “hegazkinak hain pasatzen ziren behetik, pilotuak ikusten ziren barruan”.

Pilotuen aurpegiak. Bururatzea ere. Steerrek tentatuta, Gernikako bonbardaketa bizi izan zutenen ahotsak entzuten harrapatu nau gauak. Egun hartan, Hiroshiman ez bezala, Gernikan umeez gizonak ikusi zituzten abioietako kabinetan.

Orain nagusiak dira oso. Edo hilobi zulotik mintzo zaizkigu: “hareeran, kristalezko kaixolatan gixonak... kalien ikusi ezkeroko ezeututeko moduen”.

Gizon bat botoiari sakatzen.

Hidalgo de Cisneros, Ettore Muti, Robin Olds, “zeruetako zaldunak” guztiak, botoi bana eskuetan.

Botoi bat Paul Tibbets-en erpurupean.

160.000 pertsona hil zituen atzamar bakar batez.

Besteek nola ikusten duten lurralde hau, zaila da ulertzen:
herri txiki hau, nirea, sugarretan itoko dela mehatxatua,
nire haurtzaroko
mundua kulunka, han urrun. Lur honetan sortua naiz,
adar samurra zuhaitzetatik legez,
eta hala espero dut, egunen batean nire gorputza bertan
hondoratzea. Egunen batean
landareak nire azpian etzaten direnean, adiskideak bezala
agurtuko ditut,
ezagutzen ditut euren izenak, badakit nolako loreak dituzten.
Hemen etxean nago.
Ezagutzen dut bidean dabilen jendea, badakit nora doazen
—eta zergatik—,
udako arratsalde batean eguzkiak minez bustitako sugarrez
margotzen dituela hormak.

Paul Tibbets-ek hil arte eutsi zion, ez omen zuen egin behar zena baino egin.

Nola lotsatuko zen. Amaren izenez bataiatu zuen B-29 bonbaketaria Aire eta Espazioko Museo Nazionalean dago gaur egun, Washingtonen.

Ikusgarri, ez lotsaizun.

Pilotuak, zeru gainetik, ezin dio utzi gerra-mapa bat ikusteari, baina ez daki esaten non den Mihály Vörösmartyren etxea. Zer identifika dezake? Barrakoi ilunak eta lantegi batzuk? Nik kanpandorreak, idiak, etxaldeak, kilkerak eta erleak ikusten ditudanean, fabrikak eta soroak zelatatzen ditu berak kameraz bestalde. Baina nik nekazaria ikus dezaket, uzta ikaraz babesten, kantuan ari den artzaina, mahastiak eta baso bat, eta hilobi artean amona bat alarguntasunari negarrez; eta harentzat txikitu beharreko trenbidea dena bide-aldatzeko seinale bat da, bere orratz-zainarekin, banderatxo gorria eskuan duela, ume saldoa inguruan; lantegiko patioan ardi-txakur bat dabil iraulka hauts artean; eta han, parkean, garai bateko amodioen arrastoa, eta umetako musuen ahogozoa —eztiarena, ahabiena oraino nire ahoan, eta bidean, eskolakoak atzeratze aldera, harri baten gainera igo nintzen goiz batez: begira! Hona harria, pilotuak ikusi ezin duen magia, daramatzen tresnek kokatu ezin dutelako.

Hiroshima gainean bonba atomikoa bota zuen hegazkin-formazioko soldadu bakar batek egin zion uko AEBetako gobernuak eman zien heroi trataerari. Claude Robert Eatherly zeritzon.

Egiaz, geu gara errudunak, beste herriak bezalaxe, badakigu zertan egin dugun oker, badakigu nola eta non, baina bada errurik gabeko bizitarik ere, poesia eta irritsez beteak, eta haur jaioberriak, errukirako ahalmen itzela dutenak —haiek zainduko dute argialdi hau babesleku ilunetan harik eta beste behin bakeak eriaz gure herri hau erakutsi arte, orduan erantzungo diete ahots tolesgabe eta argiz gure hitz itoei.

Estal gaitzazu zure hegal zabalokin, gauaren laino babesle horrek.

Tibbets-en begietan Hungariatik sartu ziren. Miklós Radnóti deitzen zen, eta 1944ko urtarrilaren 17an datatu zuen poema hau. So-

bietarren aurrerabidea zela eta Serbiako lan esparru batetik erretiradan, alemaniar soldaduen gatibu, ofizial hordi batek hil zuen, “zirriborroak egiten ari zelako”. Abda-n ziren, Györ-etik gertu. Bide bazterrean ehortzi zuten beste lagun batzuekin, hobi komun batean.

Handik urte eta erdira gorpuak lurrari ostu ahal izan zitzaizkionean, eskuz idatzitako kaiera bat aurkitu zen Radnótiren berokiko poltsikoan.

Tartean, poema hau.

STEER, George, *El Árbol de Gernika*, Txalaparta, 2002.

RADNÓTI, Miklós, *Marche forcée*, Pierre Jean Oswald, 1975.

—3—

HITZAURREA

—5—

OGI ZERUTIK ETORRIA
(Libia, 1911)

—7—

AZOKA EGUNA BONBEN BEGIAN
(Arrif, 1923)

—11—

BERBAK ISILDUTAKO BONBARDAKETARI
(Durango, 1937)

—15—

HERRI MARTIRIRIK BADA
(Gernika, 1937)

—21—

EDERTASUNA ERRE ZENEKOA
(Dresden, 1945)

—23—

EINSTEIN-EN AMESGAIZTOA
(Hiroshima, Nagasaki, 1945)

—29—

GERRA PSIKODELIKO HURA
(Vietnam, 1964-1975)

—33—

IDATZI, BAINA ZER
(nonahi, noiznahi)

—37—

PILOTUAREN BEGIAK
(hondar hitza)